

ORDENANTZA FISKALA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA DELA ETA EZARRI BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

TESTU BATEGINA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udalak tasak ezarri eta eskatuko ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziengatik, ordenantza honetan ezarritako arauari jarraituz, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritik.

Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua.- Ordenantza udalerrira osoan ezarriko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia da zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Pertsona fisiko eta juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikulua adierazitako entitateak dira subjektu pasibo zergadunak, baldin eta herriko jabari publikoa bereziki norbere onurarako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute.

2.- Ibilgailu edo gurdientzako espaloietako sarrerak direla eta erabilera pribatuengatik edo aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasen kasuan, edo sarrerak eraikitze, mantentze, aldatze edo kentze xedatutako tasetan, ibilgailuen sarrerak dagozkien funts eta lokalen jabeak izango dira zergadunak ordezkoak.

Hala badagokio, onuradun bakoitzari ordainarazi ahalko dizkiote kuotak.

3.- Administrazio publikoek, erkidego autonomoek eta tokiko entitateek ez dute tasarik ordaindu behar jabari publikoaren erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabidez bitzitu publikoek atxikitako aprobetxamenduen kasuan eta herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren interes zuzenekoak diren aprobetxamenduen kasuan.

ORDENANZA FISCAL

ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACION PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL.

TEXTO REFUNDIDO

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de este Territorio Histórico, establece y exige tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal especificadas en el Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

Artículo 2.- La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.- Constituye el hecho imponible la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

III. SUJETO PASIVO

Artículo 4.-

1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular.

2.- En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

3.- Las Administraciones Públicas, las comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

5. artikulua.- Tasak dagozkien lizentzien titularrek ordaindu beharko dituzte edo, bestela, aprobetxamenduaz onura ateratzen dutenek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. artikulua- Salbuespenak edo beste zerga-onura batzuk emateko, ezarri beharreko xedapen orokorretan xedatutakoari jarrituko zaio.

V. ZERGA OINARRIA

7. artikulua.- Jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean adierazitakoaren arabera.

VI. KUOTA

8. artikulua.-

1.- Tarifa aplikatzean lortutako kantitatea izango da zerga kuota, edo horretarako adierazitako kantitate finkoa, edo bi prozedurak batera aplikatzean lortutako kantitatea, eranskinean adierazitakoari jarraituz.

2.- Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta herriko jabari publikoa deuseztu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berreraikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du onuradunak eta horri dagokion zenbatekoa aldeztu aurretik gordailatu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du, deuseztutako ondasunen balioa edo hondatutako kalteen zenbatekoa bestekoa izango dena.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez zatika ez osorik, paragrafo honetan aipatutako kalte-ordain eta itzulketak.

3.- Enkantean hartzeko eskaintza publikoen prozedurak erabiltzen direnean, emakida, baimen edo esleipen proposamenaren balio ekonomikoak baldintzatuko du tasaren zenbatekoa.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua.-

1.- Zergagaiaren izaeraren arabera, herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela kausa ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: edo erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta kasu horretan horri dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa aldeztu

Artículo 5.- Las tasas se harán efectivas por aquellos a cuyo favor se otorguen las licencias correspondientes o, en su defecto, por quienes se beneficien del aprovechamiento.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 6.- La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 7.- Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público, en los términos contenidos en el Anexo.

VI. CUOTA

Artículo 8.-

1.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2.- Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, el Ayuntamiento será indemnizado en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

El Ayuntamiento no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

3.- Cuando se utilicen procedimientos de licitación pública, el importe de la tasa vendrá determinado por el valor económico de la proposición sobre la que recaiga la concesión, autorización o adjudicación.

VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 9.-

1.- La tasa por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengará, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la

aurretik gordailtezeko eska daiteke; edo jarduera edo espedientea hasarazten duen eskabidea aurkezten denean, eta orduan jarduera ez da burutuko edo espedientea ez da izapidetuko dagokiona ordaindu arte.

2.- Tasaren izaera materiala dela eta aldian aldian sortu behar bada, hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean egingo da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo amaitze den kasuetan izan ezik, kasu horretan zergaldia horren arabera egokituko baita, kuotari dagokion hainbanaketa ezarriz, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arazoak direla medio erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako eskubidea ematen edo burutzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko zaio.

VIII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

10. artikulua.- Udalak kontzeptu bakoitzagatik ordaindu beharrekoaren likidazioa egingo du eta likidatutako zenbatekoa eskudirutan ordaindu beharko da, eranskinean ordainarazpen bakoitzari buruz emandako berariazko arauak kontuan hartuta.

IX.- TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.- Ordenantza honen bidez araututako tasak likidatu, bildu eta ikuskatzearekin lotutako gaitan Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorak xedatutakoa ezarri beharko da, bai eta zerga alorreko arau-haustea kalifikatzeko eta dagozkion zehapenak zehazteko ere.

X. AZKEN XEDAPENA

Bai ordenantza hau bai eranskina, zeinak bertan adierazten den egunean onartu baitziren, 200..koren ...ean sartuko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eranskina

A) EPIGRAFEA: BIDE PUBLIKOAN HESIAK, ALDAMIOAK, PUNTELAK ETA ASTOAK JARTZEA.

~ Edukiontzia, merkantzia, eraikuntzarako materiala, obrazaborrak, hesiak, puntelak, astoak eta antzeko instalazioetarako: egunean 2,40 euroko tarifa metro karratuko, alde zehar aurreko baimena izanda.

~ Aldamioak: 0,90 euro metro karratuko eta eguneko.

B) EPIGRAFEA: ESPALOTIK ZEHAR

actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2.- Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo en la cuota, en los términos establecidos en el Anexo.

3.- Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

VIII. LIQUIDACION E INGRESO

Artículo 10.- Por el Ayuntamiento se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose en metálico la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

IX. GESTION DE LA TASAS

Artículo 11.- En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava.

X. DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza, con su Anexo, fue aprobada definitivamente en la fecha que en éste se indica, entrará en vigor el día ... de de 200.. y seguirá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Anexo

EPIGRAFE A) VALLAS, ANDAMIOS, PUNTALES Y ASNILLAS EN LA VIA PÚBLICA.

~ Previa autorización, con la tarifa de 2,40 euros por metro cuadrado y al día para contenedores, mercancías, materiales de construcción, escombros, vallas, puntales, asnillas, y otras instalaciones análogas.

~ Andamios 0,90 euros metro cuadrado y al día.

EPIGRAFE B) ENTRADA DE VEHICULOS AL

IBILGAILUAK FINKA BARRURA SARTZEA ETA BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO LEKUAK ERRESERBATZEA.

Espaloitik zehar ibilgailuak finka barrura sartzea eta bide publikoan aparkatzeko lekuak erreserbatzea.

Gehienez 5 metro lineal eta urtebeterako.

Eraikuntza tailerrak edo ibilgailuak konpontzeko lokalak: 239,08 euro.

JEZ izeneko zerga ordaintzen den lokaletan:

15 langile baino gutxiago, 116,48 euro.

15 langile baino gehiago, 239,08 euro.

Aurreko ataletakoak hartzen ez diren lokalak:

5 leku baino gutxiago, 82,76 euro.

5 eta 25 leku bitartean, 116,48 euro.

26 eta 100 leku bitartean, 165,52 euro.

100 lekutik gora, 239,08 euro.

Zamalanetarako erreserba etengabea:

6 ordura arte metro linealeko: 88,89 euro.

6 ordutik gora metro linealeko, 122,61 euro.

C) EPIGRAFEA HERRIKO FERIA ETA JAIETAN SALTOKIAK JARTZEA.

~ Barrakak, atrakzioak, jaietako karruselak eta antzekoak: 30,05 euro 5 egunetan 15 metro karraturaino.

~ 15 metro karratu baino handiagokoek 60,10 euro 5 egunetan.

~ Herriz-herrizko salmenta postuak 6 euro egunean.

D) EPIGRAFEA. MAHAIK ETA AULKIAK IRABAZTEKO XEDEAREKIN

Epigrafea

Udalak, erabilera publikoko arrazoiak direla-eta, aulkiak eta mahaiak noiz jarriko diren erabaki ahal izango du, bai eta establezimentu bakoitzak jarri beharreko aulki eta mahai kopurua ere.

Tarifak 15 eurokoak izango dira urteko eta kafe-mahai bakoitzeko edo antzeko establezimenduko.

E) EPIGRAFEA: ESTABLEZIMENDUEK FATXADETAN JARTZEN DITUZTEN PRODUKTUEN DISPENSADOREKIN (KUTXAZAIN AUTOMATIKO, VENDINGO) EMATEN DEN APROBETXAMENDUA.

- Instalazio edo jendearen zerbitzurako puntu independente bakoitzeko eta urte edo frakzioko 136,90 euro.+

F) EPIGRAFEA: IRABAZI ASMOAREKIN UDAL LOKALAK ERABILTZEA IKASTAROK, TAILERRAK, ETAB. BURUTZEKO.

1.- APLIKAZIO ARAUAK:

INTERIOR DE LAS FINCAS A TRAVES DE LAS ACERAS Y RESERVA DE APARCAMIENTO DE LOS MISMOS EN LA VIA PUBLICA.

Entrada de vehículos al interior de las fincas a través de las aceras y reserva de espacio para aparcamiento en la vía publica

Máximo 5 metros lineales y año

Locales de Talleres de construcción o reparación de vehículos, 239,08 euros.

En locales donde se abona el Impuesto s/IAE:

Menos de 15 empleados, 116,48 euros.

Más de 15 empleados, 239,08 euros.

En locales que no tienen la consideración de los anteriores apartados:

Menos de 5 plazas, 82,76 euros.

Entre 5 y 25 plazas, 116,48 euros.

Entre 26 y 100 plazas, 165,52 euros.

Más de 100 plazas, 239,08 euros.

Reserva permanente para carga y descarga:

Por ml hasta 6 horas, 88,89 euros.

Por ml más de 6 horas, 122,61 euros.

EPIGRAFE C) PUESTOS EN FERIAS Y FESTEJOS POPULARES.

~ Barracas, atracciones, carruseles de feria y similares: 30,05 euros durante 5 días hasta 15 metros cuadrados.

~ Mayores de 15 metros cuadrados 60,10 euros durante 5 días.

~ Puestos de venta ambulantes 6 euros día.

EPIGRAFE D) MESAS Y SILLAS CON FINALIDAD LUCRATIVA.

Epígrafe

El Ayuntamiento podrá establecer los días en que la ocupación no podrá realizarse, o el número de sillas y mesas por establecimiento, siempre atendiendo a razones de utilidad pública.

Las tarifas serían de 15 euros pesetas por año por cada mesa de café o establecimiento análogo.

EPÍGRAFE E) APROVECHAMIENTO CON DISPENSADORES DE PRODUCTOS VARIOS (CAJEROS AUTOMÁTICOS, VENDINGO) UBICADOS EN FACHADAS DE ESTABLECIMIENTOS.

- Por cada instalación o punto independiente de servicio al público y por año o fracción 136,90 euros.+

EPÍGRAFE F) UTILIZACIÓN DE LOCALES MUNICIPALES PARA LA REALIZACIÓN DE CURSOS, TALLERES, ETC. CON ÁNIMO DE LUCRO.

1.- NORMAS DE APLICACIÓN:



- | | |
|---|---|
| <p>1.- Tasa honen objektua da irabazi asmoarekin ikastaroak, tailerrak, etab. burutzeko udalaren ikasgelen erabilera pribatiboa.</p> <p>2.- Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean egingo dira.</p> <p>3.- Gelak erreserbatzeko irizpide orokorra hau izango da: lehentasuna emango zaie hezkuntza eta kultura arloko jardueri.</p> <p>4.- Kultura batzordeak tarifaren salbuespenen gaineko zalantzen eta egitekoa den jarduera eztabaidagarria gerta daitekeen kasuen azterketa egingo du. Baimena ukatuko balitz, ordaindutako zenbatekoa itzuli egingo da.</p> <p>5.- Tasaren sortzapena eskaera onartzen denean egingo da eta ordainketa likidazioa jakinarazi eta bi hilabeteko epean egin beharko da.</p> <p>6.- Erabiltzaileek egindako kalteak, hausturak, etab. haien kargu izango dira. Jarduera motagatik beharrezko balitz, Udalak fidantza jartzeko baldintza ezarri dezake.</p> <p>7.- Tasa ordaintzetik salbuetsita daude gizarte, hezkuntza, kirol eta kultura arloko elkarteak eta Administrazio Batzarrak.</p> <p>2.- TARIFAK:</p> <p>1.- Ordukako erreserbak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kultur etxeko bigarren solairuko gela handia: 5 euro/orduko. - Kultur etxeko hirugarren solairuko gela txikia: 2 euro/orduko. <p>2- Ikasturteko erreserbak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kultur etxeko bigarren solairuko gela handia: ikasturteko 154,66 euro asteroko ordu bateko erreserbagatik. - Kultur etxeko hirugarren solairuko gela handia: ikasturteko 41,04 euro asteroko ordu bateko erreserbagatik. | <p>1.- Constituye el objeto de esta tasa la utilización privativa con ánimo de lucro de aulas municipales para la realización de cursos, talleres, etc.</p> <p>2.- Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General de Ayuntamiento.</p> <p>3.- El criterio general de reserva de aulas es el siguiente: se dará preferencia a las actividades educativas y culturales.</p> <p>4.- La comisión de cultura será la encargada de estudiar la aplicación de las exenciones y los casos en los que la actividad pueda ser cuestionable. En caso de denegación del permiso, se devolverán los importes abonados.</p> <p>5.- La tasa se devengará en el momento de aceptación de la solicitud y el pago se realizará en el plazo de dos meses desde la notificación de la liquidación.</p> <p>6.- Los desperfectos, roturas, etc. causados por las personas usuarias correrán a su cargo. En función del tipo de actividad el Ayuntamiento puede fijar como condición la imposición de fianza.</p> <p>7.- Estarán exentos del abono de esta tasa las asociaciones sociales, educativas, deportivas y culturales, y las Juntas Administrativas.</p> <p>2.- TARIFAS:</p> <p>1.- Por las reservas de aulas por horas:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aula grande del segundo piso de la Casa de Cultura: 5 euros/hora. - Aula pequeña del primer piso de la Casa de Cultura: 2 euros/hora. <p>2.- Por las reservas de aulas por curso escolar:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aula grande del segundo piso de la Casa de Cultura por curso escolar: 154,66 euros por la reserva de una hora semanal. - Aula pequeña del primer piso de la Casa de Cultura por curso escolar: 41,04 euros por la reserva de una hora semanal. |
|---|---|

| ALDAKETEN HISTORIA LA | HISTORIAL DE MODIFICACIONES |
|---|---|
| OHARRA: Testu hau hasierako testuaren eta ondoren aipatzen diren aldaketen bertsio bateratua da. Bere helburua soilik informatzailea eta kontsultakoa da. Legezko baliodun testu bakarrak publikazio ofizialetan jasotakoak dira. | NOTA: El presente texto es una versión integrada de primer texto y de las modificaciones que se indican. Su publicación tiene finalidad exclusivamente informativa y de consulta. Los únicos textos considerados legalmente válidos son los que aparecen en las publicaciones oficiales |

| | | | |
|---|--|--|---|
| Udal Plenoan onartutako eguna / Fecha de aprobación | ALHAOn argitaratutako eguna / Fecha publicación en BOTHA | Indarrean sartu den eguna / Fecha de entrada en vigor. | Aldatutako artikulua k / artículos modificados. |
|---|--|--|---|

| | | | |
|--------------------|------------|------------|---|
| en Pleno Municipal | | | |
| 28/11/2001 | 2002/03/20 | 2002/03/21 | Lehen onarpena. / Primera aprobación. |
| 2013/05/31 | 2013/12/30 | 2014/01/01 | 8.3 artikulua berria eta E epigrafe berria. |
| 2013/11/28 | 2014/03/14 | 2014/03/15 | F epigrafe berria. |
| 2016/10/27 | 2017/02/10 | 2017/02/11 | D epigrafe BALIOGABETUA. BESTE ORDENANTZA BERRI BAT OSTALARITZAREN TERRAZAK ARAUTZEKO. |